

## 9-KOSTU-EGITURA

Gure negozioia has dezagun hasierako inbertsioa egin beharko dugu, horretarako fabrika bat alokatuko dugu (30.000 euro kostatuko zaiguna urtero), makinak erosiko ditugu (25.000€), langileak kontratatuko ditugu (soldatak 144.000€ urtero), sistema informatikoa erosiko dugu (2.000€) eta azkenik gastu korronteak edo mantenimendu gastuak izango ditugu (6.000€ urtero). Honela, urte osoko gastu finkoak 207.000€ izango dira, eta hasierako inbertsioa 50.000€-koa izango litzateke, kontuan hartuta lehenengo hilabetean behar dugun dirua, alokairuko 2500€ eta makineko 25.000€... lirateke.

Hasierako inbertsioa egin eta gero, plakak ekoizteko prest egongo gara, eta gure aurreikuspenak honakoak dira: urte batean 207 plaka salduko ditugu, honek esan nahi du urte bateko ekoizpen-kostuak 1.345.500€ izango direla, plaka bakoitzaren instalazioa 6.500€-ko kostua suposatzen digula kontuan hartuta. Aldiz, gure enpresa errentagarria izateko eta garatzeko etekin-portzentaia mantendu beharko dugu. Horretarako, plakaren instalazioa 8.000€-tan eskainiko dugu, honela urte batean 1.656.000€-ko diru-sarrerak lortuko ditugu eta etekinak 103.500€-koak izango dira. Enpresan hiru bazkide garenez, dirua 3 zatitan banatuko dugu. Orduan, enpresaren bazkide bakoitza 34.500€ irabaziko ditugu lehenengo urtean, eta lehenengo urtetik aurrera, salmenta kopuru berdinekin jarraituko bagenu, 128.000€-eko etekinak aterako genituzke, eta bazkide bakoitzak 42.8333€ irabaziko genuke .

DIRU-SARRERAK				
Plakak	Kopurua	Prezioa	Guztira	Etekin portzentaia
Urtean	207	8.000€	1.656.000€	72.000€
Hilabetean	18	8.000€	144.000€	12.000€
GASTUAK		Hilabetean	Urtean	
Fabriakren alokairua		2.500	30.000€	
Makinak		25.000€	25.000€	
Soldatak		12.000€	144.000€	
Informatika		2.000€	2.000€	
Gastu korronteak		500€	6.000€	
Guztira		42.000€	207.000€	

Bigarren urtean, makinaren gastua desagertuko litzatekeela, makinak erosita izango genituzkeelako. Horrela, bigarren urtetik aurrera gastuak 182.000€-tan geldituko lirateke.